## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

845

**58/2013 FORU AGINDUA, otsailaren 7koa, Burgeluko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen bosgarren aldaketari buruzko espedienteari behin betiko onespena eman eta ukatzen diona.**

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Burgeluko Udalak, 2012ko ekainaren 13ko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea planeamenduko arau subsidiarioen bosgarren aldaketari buruzko espedienteari, eta espediente hori jendaurrean jartzea. Azken hau, ALHAOn (74. zenbakia, 2012ko ekainaren 27koa), Diario de Noticias de Álava egunkarian (2012ko ekainaren 28an) eta udalaren iragarki taulan iragarkiak argitaratuz eta udalerriko administrazio batzarrei jakinaraziz egin zen.

Bigarrena.- Jendaurrean egon zen bitartean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu; beraz, udalak, 2012ko irailaren 26ko bilkuran, behinbehineko onarpena eman zion espedienteari eta ebazpen horren berri eman zien udalerriko administrazio batzarrei.

Hirugarrena.- Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalak abenduaren 11n egindako 8/2012 bilkuran, espedientearen aldeko txostena eman zuen.

Laugarrena.- Burgeluko Udalak espedientea bidali zuen horrek behin betiko onarpena jasotzeko (Aldundi honen Erregistroko 2012ko abenduaren 17ko sarrera data), Udalbatzaren 2012ko azaroaren 7ko bilkuran hartutako erabakiaren ziurtapena erantsita. Erabaki horren bidez, uko egin zitzaion aldaketaren 1.2 puntua (lur azpian izan litezkeen hidrokarburoen arakatze, zulatze eta ustiatze jardueren ingurukoa) izapidetzeari.

Bosgarrena.- Halaber, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuan xedatutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak espediente horren inguruko txostena eman zuen, urtarrilaren 28ko 1/2013 bilkuran.

OINARRIAK

Lehenengoa..- Espedientearen helburua ondoren zerrendatzen diren lau aldakuntza hauek dira:

1.- Ur ibilgu eta masetarako eskatutako tarteen araudia aldatzea. Tarte horiek udala ez den erakunde batek emandako arloko baterako baimen sektorial baten menpe daude, zeina arau subsidiarioetan aurreikusitako tarteekin kontraesankorra izan bailiteke.

2.- SUR-2 hiri lurzoruan bizitegitarako erabileraren osagarrizko eraikuntzen (hala nola etxola, egurtegi edo garajeen) araudia aldatzea.

3.- Añuako SAUR-1eko Antolamendu Plan Partzialetik abiatuta garatutako hiri lurzoruari eragiten dion araudia aldatzea, udalaren jabetza den bizitegitarako lurzatian bi familiako etxebizitza bat eraikitzea baimentzeko helburuaz.

4.- Arbuluko gizarte etxea egingo den lurzatiaren kalifikazio xehatua aldatzea.

Bigarrena.- Lehenengo aldaketak berekin dakar arau subsidiarioak EAEko Ibai eta Erreka Bazterrak (Mediterraneoko isurialdea) Antolatzeko Arloko Lurralde Planean ezarritako tarteetara egokitzea. Proposatutako aldaketarekin arloko araudiaren zehaztapenak errespetatzen direnez gero, lege aldetik ez dago hura onartzeko inolako eragozpenik.

Hala ere, kontuan edukiz lurzoru urbanizaezineko eraikuntza erabilerek, 30 eta 50 metro bitarteko lur zerrendan, Natura 2000 Europako Sare Ekologikoa osatzen duten eta Burgeluko udalerrian zehar igarotzen diren ibai edo ur masetan (Dulantzi errekako EBIL eta Zadorrako urtegietako EBIL) izan lezaketen eragina, ingurumen balioespeneko txostena eskatu beharko da, Arabako Foru Aldundiaren ingurumen organoak eman beharrekoa.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

845

**ORDEN FORAL 58/2013, de 7 de febrero, de aprobación definitiva y denegación del expediente de quinta modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Elburgo.**

ANTECEDENTES

Primero.- El Ayuntamiento de Elburgo acordó, en sesión del día 13 de junio de 2012, aprobar inicialmente el expediente de la quinta modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como someterlo a información pública, hecho que fue practicado mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOTHA nº 74, de 27 de junio de 2012, en el periódico Diario de Noticias de Álava de 28 de junio de 2012, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y notificación a las Juntas Administrativas del municipio.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 26 de septiembre de 2012, a aprobar provisionalmente el expediente y notificar dicha resolución a las Juntas Administrativas del municipio.

Tercero.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco informó favorablemente el expediente en su sesión 8/2012, de 11 de diciembre, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava.

Cuarto.- El Ayuntamiento de Elburgo remitió el expediente para su aprobación definitiva con fecha de entrada en Registro de esta Diputación de 17 de diciembre de 2012, adjuntando una certificación del acuerdo adoptado en el pleno de 7 de noviembre de 2012 por el que se desistía de la tramitación del punto 1.2 de la modificación, relativo a las actividades de prospección, perforación y explotación de hidrocarburos que pudieran existir en el subsuelo.

Quinto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 1/2013, de 28 de enero.

FUNDAMENTOS

Primero.- El expediente tiene por objeto cuatro modificaciones que se relacionan a continuación:

1.- Modificación de la regulación de las separaciones exigidas a los cauces y masas de agua, que dependen de una autorización sectorial concurrente otorgada por parte de un Organismo distinto del Ayuntamiento, y que pudiera resultar contradictoria con las separaciones previstas en las Normas Subsidiarias.

2.- Modificación en el Suelo Urbano SUR-2 de la regulación de las edificaciones complementarias del uso residencial tales como casetas, leñeras o garajes.

3.- Modificación de la normativa que afecta al Suelo Urbano desarrollado a partir del Plan Parcial de Ordenación del SAUR-1 de Añua, con el fin de permitir la edificación de una vivienda bifamiliar en la parcela residencial de propiedad municipal.

4.- Modificación de la calificación pormenorizada de la parcela destinada a albergar el Centro Social de Arbulo.

Segundo.- La primera de las modificaciones supone la adaptación de las Normas Subsidiarias a los retiros establecidos en el Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV (vertiente mediterránea). Dado que con la modificación propuesta se respetan las determinaciones de la normativa sectorial, no existe impedimento legal alguno para su aprobación.

Ahora bien, teniendo en cuenta la afección que los usos constructivos en suelo no urbanizable pudieran tener, en la banda de 30 a 50 metros, sobre los ríos o masas de agua que forman parte de la Red Ecológica Europea Natura 2000 que discurren por el municipio de Elburgo (LIC del Río Alegría y LIC de los Embalses del Zadorra), se deberá solicitar un informe de valoración ambiental a emitir por el órgano ambiental de la Diputación Foral de Álava.

Txosten hori hamabost eguneko epean eman beharko da, eskabidea Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean sartzen den egunetik aurrera kontatuta. Epe horretan txostenaren edukia ez bazaio jakinarazten Burgeluko Udalari, baiezkoa dela iritziko da.

Bigarren aldaketaren ondorioz, handitu egiten da etxola, egurtegi eta garajeen azalera eraikia eta, negutegien kasuan, gehienez ere 100 m²ko azalera ahalbidetzen da.

Udalak, bizitegitarako hiri lurzorurako planeamendu ahalmenaz baliatuz, daukan aginpide esklusiboaren barruan dauden zehaztapenak direnez gero, ez dago inolako eragozpenik jartzerik.

Hirugarren aldakuntzaren bidez, 1 poligonoko 72 lurzatian (udalaren jabetzakoa, Añuako SAUR-1 Plan Partzialaren garapenetik sortua) bi familiako etxebizitza bat eraikitzea ahalbidetu nahi da – indarrean dagoen planeamenduak bertan familia bakarreko etxe bat eraikitzeko bide ematen du.

Aldaketaren arrazoiak ondoko hauek dira: titulartasun publikoko 74 eta 40 zenbakiko lurzatietan, azkenean gizarte etxe berria eraikitzera bideratu direnetan, bi familiako etxebizitza bat eraikitzeko aukera zegoela eta, beraz, galdutako etxebizitza berreskuratzea izango litzateke.

4 zenbakiko egikaritze unitatean bi familiako etxebizitza bat eraikitzeko aukera izateaz landa, egia hauxe da: 1 poligonoko 72 zenbakiko lurzatiari, 1.020 m²ko azalera duenari, aplikagarria zaiola SAUR-1 Plan Partzialaren araudia, eta horren 11.2.3 artikuluan ezartzen dela eraikuntza mota bakarra familia bakarreko etxe bakartua dela. Horrengatik, proposatutako aldakuntzak ezin dezake aurrera egin, planteatu den moduan.

Laugarren aldaketa Arbuluko Administrazio Batzarrak oraingo kokalekuan dagoen gizarte etxea eraberritu eta zabalagotzeko hartutako erabakiaren ondorioa da, horretarako beharrezkoa baita 1 poligonoko 358 lurzatiko 922,94 m² ekipamendu bezala kalifikatzea. Azalera hori bizitegitarako hiri lurzoru bezala kalifikatzen da 1 poligonoko 402 lurzatian. Indarrean dauden arau subsidiarioetan, ordean, ekipamendu sistema orokor bezala kalifikatuta dago, bertan gizarte etxe berria eraikitzeko asmoa zegoen eta.

Kalifikazio aldaketak eragiten dion jabearekin lortutako akordioa ikusirik, eta proposatutako aldakuntzaren azpian dagoena Arbuluko herrigunearen interes orokorra izanik, lege aldetik ez dago hura onartzeko inolako eragozpenik.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onespena ukatzea Burgeluko planeamenduko arau subsidiarioen bosgarren aldaketari buruzko espedientearen 1.4 puntuari, Añuako 1 poligonoko 74 zenbakiko lurzatian bi familiako etxebizitza bat eraiki ahal izateko proposamenaren ingurukoari.

Bigarrena.- Behin betiko onespena ematea Burgeluko arau subsidiarioen bosgarren aldaketari buruzko espedienteari, dokumentu teknikoaren 1.1, 1.3 eta 1.5 puntuei dagokienez, ondoko baldintzarekin:

- Natura 2000 Europako Sare Ekologikoa osatzen duten eta Burgeluko udalerrian zehar igarotzen diren ibai edo ur masetatatik (Dulantzi errekako EBIL eta Zadorrako urtegietako EBIL) 30 eta 50 metro bitarteko lur zerrendan kokatu nahi diren lurzoru urbanizaezineko eraikuntza erabilerei buruz, ingurumen ebaluazioa egin beharko du Arabako Foru Aldundiaren ingurumen organoak.

Txosten hori hamabost eguneko epean eman beharko da, eskabidea Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean sartzen den egunetik aurrera kontatuta. Epe horretan txostenaren edukia ez bazaio jakinarazten Burgeluko Udalari, baiezkoa dela iritziko da.

Hirugarrena.- Adierazi den baldintza ez da funtsezkoa. Beraz, hura zuzendutakoan espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio, testu bateratuan, jendaurrean jartzeko izapidea berriro egin beharrik gabe, betearazi beharrekoa dela adierazteko, eginbideak egiteko eta argitara emateko.

Dicho informe deberá ser emitido en el plazo de quince días a contar desde la entrada de la solicitud en el Registro General de la Diputación Foral de Álava, entendiéndose que será positivo si en dicho plazo no hubiera sido notificado el contenido del informe al Ayuntamiento de Elburgo.

En virtud de la segunda modificación se incrementa la superficie construida de las casetas, leñeras y garajes, posibilitándose, en el caso de los invernaderos, un máximo de 100 m².

Dado que se trata de determinaciones que entran dentro de la exclusiva competencia municipal en el ejercicio de la potestad de planeamiento en el suelo urbano residencial, no cabe efectuar objeción alguna.

Mediante la tercera modificación se pretende permitir la construcción de una vivienda bifamiliar en la parcela nº 72, polígono 1, de propiedad municipal, proveniente del desarrollo del Plan Parcial SAUR-1 de Añua y donde el planeamiento vigente posibilita la construcción de una vivienda unifamiliar.

La justificación de la modificación viene dada por el hecho de que en las parcelas de titularidad pública nº 74 y 40, que finalmente se han destinado a la construcción del nuevo centro social, se posibilitaba la edificación de una vivienda bifamiliar, por lo que se trataría de recuperar la vivienda perdida.

Más allá de que en la unidad de ejecución nº 4 se permitiera la construcción de una vivienda bifamiliar, lo cierto es que a la parcela nº 72, polígono 1, de una superficie de 1.020 m², le es de aplicación la normativa del Plan Parcial SAUR-1, en cuyo artículo 11.2.3 se establece como único tipo edificatorio el de vivienda unifamiliar aislada. Es por ello que no puede prosperar la modificación propuesta en los términos en que ha sido planteada.

La cuarta modificación es consecuencia de la decisión adoptada por la Junta Administrativa de Arbulo de reformar y ampliar el centro social existente en la ubicación actual, siendo preciso para ello calificar como equipamiento 922,94 m² de la parcela 358, polígono 1. Dicha superficie es calificada como suelo urbano residencial en la parcela 402, polígono 1, que en las vigentes Normas Subsidiarias esta calificada como sistema general de equipamiento, ya que se preveía construir en ella el nuevo centro social.

A la vista del acuerdo alcanzado con el propietario afectado por el cambio de calificación y dado que es el interés general del núcleo de Arbulo el que subyace en la modificación propuesta, no existe impedimento legal alguno para su aprobación.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Denegar la aprobación definitiva del punto 1.4 del expediente de quinta modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Elburgo, relativo a la propuesta de posibilidad de construcción de una vivienda bifamiliar en la parcela nº 74, polígono 1 de Añua.

Segundo.- Aprobar definitivamente el expediente de quinta modificación de las Normas Subsidiarias de Elburgo, referente a los puntos 1.1, 1.3 y 1.5 del documento técnico, con la siguiente condición:

- Los usos constructivos en suelo no urbanizable que se pretendan ubicar en la franja de treinta a cincuenta metros de los ríos y masas de agua que forman parte de la Red Ecológica Europea Natura 2000 que discurren por el municipio de Elburgo (LIC del Río Alegría y LIC de los Embalses del Zadorra, deberán ser sometidos a evaluación ambiental por parte del órgano ambiental de la Diputación Foral de Álava.

Dicho informe deberá ser emitido en el plazo de quince días a contar desde la entrada de la solicitud en el Registro General de la Diputación Foral de Álava, entendiéndose que será positivo si en dicho plazo no hubiera sido notificado el contenido del informe al Ayuntamiento de Elburgo.

Tercero.- La condición señalada no es sustancial, por lo que una vez subsanada se elevará el expediente a la Diputación Foral, elaborando un texto refundido, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Laugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena.- Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik kontatzen hasita, EAEko Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horretako salan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 7a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

## Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

813

**Diputatuen kontseiluak 2013ko otsailaren 12ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena.**

**- Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

66/2013 Erabakia, otsailaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, berritu egiten dira aldundi honek Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailarekin zerikusia duten zenbait erakunde eta organismotan dituen ordezkariak.

EKONOMIA SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

67/2013 Erabakia, otsailaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da Araban ekimenak garatzeko eta enpresa berriak sortzeko laguntzen 2013ko ekitaldirako deialdia (Emprender en Álava).

68/2013 Erabakia, otsailaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da Araban berrikuntza sustatzeko laguntzen 2013ko ekitaldirako deialdia (Álava Innova).

69/2013 Erabakia, otsailaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, esleitu egiten da eraikinak garbitzeko prozedura mugatua.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

70/2013 Erabakia, otsailaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da A-4358 errepide zatiaren erabileraren herri jabariko aldaketa, bai eta Iruña Veleiako arkeologia aztarnategiak eratutako monumentu multzoaren arloko arean sartzea ere, eta, ondorioz, hura Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikitzea.

TOKI ADMINISTRAZIOAREN SAILA

71/2013 Erabakia, otsailaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2012-2015erako Programaren gauzatze memoria, hura Arabako Biltzar Nagusietara bidaltzeko.

HERRILAN ETA GARRAIO SAILA

72/2013 Erabakia, otsailaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da Hereñako Administrazio Batzarrarekin hitzarmen bat izenpetzea, A-4343 errepidearen bidegune bat eskualdatu eta herriko bide bihurtzeko.

73/2013 Erabakia, otsailaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, esleitu egiten da 2013ko aurrekontuan zenbatekoa “Instalazio elektrikoak mantentzeko, datuak ustiatzeko (bide segurtasuna) eta errepideak kontrolatzeko zentroa kudeatzeko, errepideen ustiapenerako hobekuntzak egiteko eta elementuak ordezteko, eta foru sareko errepideetako neurketa egitasmoa planifikatu eta gauzatzeko”.

74/2013 Erabakia, otsailaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, esleitu egiten da “Arabako lurralde historikoan eskaeren araberako bidaiarien garraio zerbitzuaren” kontratua dela-eta 2013rako ustezko zenbatekoa.

Cuarto.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Quinto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 7 de febrero de 2013.– La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

## Anuncios

### SECRETARIA GENERAL

813

**Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión ordinaria celebrada el 12 de febrero de 2013.**

**- Acuerdos:**

DEPARTAMENTO DE DIPUTADO GENERAL

Acuerdo 66/2013, del Consejo de Diputados de 12 de febrero, que renueva la representación de esta Diputación Foral en diversas Entidades y Organismos relacionados con el Departamento de Promoción Económica y Administración Foral.

DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y ADMINISTRACIÓN FORAL

Acuerdo 67/2013, del Consejo de Diputados de 12 de febrero, que aprueba la convocatoria de ayudas para emprender y crear nuevas empresas en Álava (Emprender en Álava) para el ejercicio 2013.

Acuerdo 68/2013, del Consejo de Diputados de 12 de febrero, que aprueba la convocatoria de ayudas para promover la innovación en Álava (Álava Innova) para el ejercicio 2013.

Acuerdo 69/2013, del Consejo de Diputados de 12 de febrero, que adjudica el procedimiento restringido para contratar la limpieza de edificios.

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

Acuerdo 70/2013, del Consejo de Diputados de 12 de febrero, que aprueba la mutación demanial de uso del tramo de carretera A-4358 e integración en el área del conjunto monumental del Yacimiento Arqueológico de Iruña-Veleia, con la consiguiente adscripción del mismo al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL

Acuerdo 71/2013, del Consejo de Diputados de 12 de febrero, que aprueba la Memoria de Ejecución del Programa 2012-2015 del Plan Foral de Obras y Servicios, para su remisión a las Juntas Generales de Álava.

DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

Acuerdo 72/2013, del Consejo de Diputados de 12 de febrero, que aprueba la suscripción de un Convenio con la Junta Administrativa de Hereña para la transferencia de un tramo de la carretera A-4343 para su conversión en vial urbano de la localidad.

Acuerdo 73/2013, del Consejo de Diputados de 12 de febrero, que consigna una cantidad en la anualidad de 2013 para el “Servicio para mantenimiento de instalaciones eléctricas, explotación datos (seguridad vial) y gestión del centro control carreteras, actuaciones de mejora y reposición elementos para explotación de la carretera, y planificación y realización del plan de aforos”.

Acuerdo 74/2013, del Consejo de Diputados de 12 de febrero, que consigna el importe estimado para la anualidad de 2013 del contrato de “Servicio de transporte de viajeros a la demanda del Territorio Histórico de Álava”.